

*Jardunaldiak/jornadas
martxoak24 de marzo*

**HIZKUNTZA POLITIKA
POLÍTICA LINGÜÍSTICA**



*aldaketarako proposamenak
prouestas para el cambio*

HIZKUNTZA POLITIKA

LABURPENA

Hizkuntza ezinbesteko elementua da komunitate baten bizitzan nola erakunde publikoen eta herritarren arteko harremanetan. Hizkuntza politikaren ponentzian NaBaik bertako bi hizkuntzek, euskarak eta gaztelaniak, Nafarroako bizitza sozialean izan beharko luketen tokia zehaztu du. Laburbilduz, aipatu dokumentuak honako hauek biltzen ditu:

Nafarroako berezko bi hizkuntzak oso egoera ezberdinetan daude ezagutza eta erabilpen sozialaren aldetik. Azken hamarkada hauetan Foru Administrazioak bi hizkuntzen egoera parekatzera jo beharrean, euskararen eta gaztelaniaren arteko legezko parekotasunik ezan oinarritu du bere hizkuntza politika, Nafarroako herrien arteko muga linguistikoak ezarriz eta herritarrei hizkuntza eskubide ezberdinak aitortuz. Finean, UPN-CDNren azken legealdiotako euskararen kontrako politika erasokorrek larriagoturik, egun nafar euskaldunak eta gaztelaniadunak oso egoera ezberdinetan daude zerbitzu publikoak euren hizkuntzan hartu ahal izateko.

NaBairen hizkuntza politikaren egitasmoa gako hitz hauek definitzen dute:

Berdintzalea, Nafarroako bi hizkuntza komunitateentzat berdintasuna bermatu nahi baitu. Nafarroako bi hizkuntzek estatus bera izan behar dute legez. Euskarari gaztelaniak duen estatus bera ematea, hau da euskarari ofizialtasuna Nafarroa osoan aitortzea da herritarren artean berdintasuna bermatzeko lehen baldintza. Hizkuntza politikak nafar euskaldunentzat baztertzailleak diren egungo lege-arauak zuzenduko ditu, Foru Hobekuntzako Legearen 9. artikulutik hasita.

Borondatezkoa, herritarrek aukeran izanen baitute Nafarroako zein hizkuntza erabili eta Administrazioak herritarren borondatea, hautatzeko eskubidea, babestu beharko du.

Hizkuntza eskubideen babesgarria, nafar euskaldunen nola gaztelaniadunen hizkuntza eskubideak babestea lehentasuna izanen baitu. Nafarroan ezarrita dauden Administrazio guztien aldetik egitekoa.

Ekintza positiboaren eragilea izanen da historikoki zokoratua eta legez menpekota izan den hizkuntzaren alde. Euskarak gaztelaniarekin parekotasuna lortuko du urteetako kontrako politiken eraginak eta gabeziak berdindutakoan. Ekintza positiboa demokraziak egoera juridikoak berdintzeko erabiltzen duen tresna da.

Malgua, hizkuntza politika Nafarroa osoan aplikatzeko ezarpen mailakatuak ahalbidetzen dituena. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko

lurralde osorako gutxienekoak zehaztuko dira baina tokian tokiko egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika egingen da. Udalek paper garrantzitsua izanen dute hizkuntza politikaren mailak eta intentsitateak definitzeko orduan.

Progresiboa, hau da, ofizialtasunari lotutako neurriak arian-arian edo progresiboki eta Nafarroako egoera soziolinguistikoa den errealitate dinamikoari erreparatuta aplikatuko dira.

Europarra, Europako baloreekin bat egiten duena eta Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartan jasotakoak nola Europako Kontseiluaren gomendioak errespetatzen dituena.

Zeharkakoa, Administrazioaren sail bakar bati lotuta egon beharrean, zeharkako izaera duen politika ildoak izan beharko luke.

Hitz gako horien bidez definitu den hizkuntza politika diseinatzean ezin ahantzi genezake euskara berezko hizkuntza duten Euskal Herriko beste lurraldeetako administrazioekin lankidetzak esparruak landu beharra. Bestalde, hizkuntza politika eraginkorrak bitartekoz eta finantziarioz ongi horniturik behar du.

Nafarroan hizkuntza elkarbizitzak dituen gabezia larriak berdintze aldera: nafarren euskararako eskubideak murrizten dituzten lege-araudiak indargabetu edo aldatu behar dira; euskara Nafarroa osoko ondare gisa duintzeko komunikazio estrategia instituzional berria paratu behar da abian; Foru Administrazioak herritarrei arreta eta zerbitzua euskaraz eman ahal izateko langile prestakuntza nola erabilera planak diseinatu behar ditu, bai eta bide digitaletik ematen diren zerbitzuak horretarako prestatu ere; Hezkuntza Publikoak euskaraz ikasi nahi duten ikasleei hala egiteko aukera emanen die, Nafarroa osoan eta maila guztietan, Haur Eskolatik hasi eta Unibertsitatera bitartean, Lanbide Heziketa ere kontuan hartuz; Helduen Euskalduntze-Alfabetatzea babestu, sustatu, duindu eta diruz ongi hornituko du; atzeritik heldu diren nafar berriak linguistikoki bertakotzeari arreta emanen dio; euskarazko hedabide publiko nahiz pribatuak izatea bermatuko du eta horretarako, dirulaguntza sistema eraginkorra ezarri eta euskararen erabileraren irizpidea kontuan hartuko du irrati eta telebista lizentziak emateko deialdietan; euskararen erabilera sustatzea xede duten gizarte ekimeneko edo ekimen pribatuko programak finantzatzeko deialdiak egingen ditu; eskolaz kanpoko eta aisialdi alorretan euskararen erabilera sustatzeko programa bereziak abiaraziko ditu.

Proposamen berezi gisa: Nafarroako Parlamentuak herritarren hizkuntza eskubideen bermea begiratuko lukeen behatzaile baten figura sortuko du; arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko neurri bereziak ezarriko ditu eta Nafarroako Soziolinguistika Institutua sortuko du.

POLÍTICA LINGÜÍSTICA

RESUMEN

La lengua es un elemento fundamental en la vida de una comunidad así como en las relaciones de las instituciones públicas con los ciudadanos. En la Ponencia sobre política lingüística, NaBai ha determinado el papel que las dos lenguas de Navarra, euskera y castellano, han de jugar en la vida social de la Comunidad. Este es el resumen de lo contenido en dicha ponencia:

Las dos lenguas propias de Navarra están en situaciones muy desiguales en lo que a conocimiento y uso social se refiere. En estas últimas décadas, la Administración Foral en vez de buscar la paridad entre las situaciones de las dos lenguas, ha basado su política lingüística en la desigualdad de trato legal a euskara y castellano, creando fronteras lingüísticas entre las localidades navarras y reconociendo diferentes derechos lingüísticos entre la ciudadanía. Como consecuencia de ello y agravado por la política agresiva en contra del euskera de UPN-CDN en las últimas legislaturas, actualmente, navarros vascohablantes y castellanohablantes se encuentran en muy diferentes situaciones a la hora de poder acceder a servicios públicos en su lengua.

El programa sobre política lingüística de NaBai se define por los siguientes conceptos:

Igualdad para las dos comunidades lingüísticas de Navarra. Las dos lenguas de Navarra han de tener el mismo estatus legal. Dar al euskera el mismo estatus que tiene el castellano, es decir, reconocerlo como lengua oficial en toda Navarra es el primer requisito para garantizar la igualdad entre todos los ciudadanos. La política lingüística corregirá toda discriminación contra los vascohablantes que la actual legislación contiene, comenzando por el 9º artículo de la LORAFNA.

Voluntariedad para los ciudadanos a la hora de elegir qué lengua de Navarra utilizan y obligatoriedad de la Administración de respetar esa voluntad como reconocido derecho de elección.

Protección de los derechos lingüísticos de todos los navarros, vascohablantes como castellanohablantes, y por parte de todas las administraciones sitas en Navarra.

Acción positiva a favor de la lengua históricamente desfavorecida y legalmente oprimida. El euskera podrá igualarse al castellano cuando se corrijan las deficiencias generadas por años de políticas discriminatorias. La acción positiva es un instrumento de la Democracia para equiparar situaciones jurídicas.

Flexibilidad a la hora de aplicar la política lingüística a toda Navarra, posibilitando aplicaciones graduadas. Se establecerán unos mínimos para toda la Comunidad con la finalidad de respetar los derechos lingüísticos de los ciudadanos y se implementará una política lingüística adaptada a cada situación sociolingüística. Las entidades locales jugarán un papel importante y tendrán protagonismo a la hora de definir los grados e intensidades de dicha política lingüística.

Progresividad en la implementación de las medidas vinculadas a la oficialidad atendiendo a la realidad sociolingüística como fenómeno dinámico.

Europea, por atender a los valores y medidas contenidas en la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias y a las recomendaciones del Consejo de Europa.

Transversalidad por entender que el trato a dar a las lenguas de la Comunidad trasciende un departamento administrativo y ha de ser un valor y un criterio transversal que impregne toda la actividad política.

La política lingüística definida en esos términos mantendrá relaciones de colaboración con las otras administraciones de los territorios de Euskal Herria que como Navarra forman parte de la comunidad lingüística vascohablante. Además, una política lingüística eficaz ha de estar adecuadamente dotada en medios y financiación.

Como medidas para corregir la actual desigualdad entre las dos lenguas de Navarra: se eliminará toda restricción contra los vascohablantes contenida en la legislación vigente; se pondrá en marcha una nueva estrategia comunicativa institucional para dignificar la lengua vasca como patrimonio de Navarra; la Administración Foral diseñará planes de formación del funcionariado y de uso del euskera, así como preparará los servicios de la Administración Virtual para garantizar el servicio y atención en euskera a los ciudadanos; el sistema educativo garantizará el derecho de todos los alumnos a la escolarización en euskera, desde la Escuela Infantil a la Universidad, pasando por la Formación Profesional; se fomentará, dignificará y dotará adecuadamente la enseñanza de euskera y alfabetización de adultos; se atenderá a la integración lingüística de los nuevos ciudadanos navarros de origen extranjero; se garantizará la existencia de medios de comunicación en euskera, tanto públicos como privados, se establecerá un sistema de ayudas y se incluirá el uso del euskera en los criterios de las convocatorias para la adjudicación de licencias; se realizarán convocatorias para la financiación de programas, tanto de iniciativa social como privada, que tengan como objetivo la promoción del uso de la lengua vasca; se pondrán en marcha programas destinados a fomentar el uso del euskera en el ámbito extraescolar y de ocio. Entre las propuestas especiales: la creación por el Parlamento de Navarra de una figura de Observador/a de los derechos lingüísticos; medidas especiales para fomentar el uso de la lengua vasca en el ámbito socioeconómico y la creación del Instituto Navarro de Sociolingüística.

HIZKUNTZA POLITIKARAKO PROPOSAMENA

Aurkibidea

- 1.- SARRERA
- 2.- OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTUREN ARGITZEA.
- 3.- NAFARROA BAIK PROPOSATZEN DUEN HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA ZENBAIT HITZETAN DEFINITZEKO.
- 4.- HIZKUNTZA POLITIKA BERRIRAKO LEGE EGOKIA
- 5.- PROPOSAMEN BEREZIAK.

1. Sarrera

NAFARROA BAI KOALIZIOAREN HAUTESKUNDE PROGRAMARAKO DOKUMENTUA HIZKUNTZA POLITIKAREN GAINEAN

Nafarroa Bai koalizioaren hauteskunde programarako dokumentua hizkuntza politikaren gainean

Nafarroako berezko bi hizkuntzak oso egoera ezberdinetan daude ezagutza eta erabilpen sozialaren aldetik. Azken hamarkada hauetan Foru Administrazioak bi hizkuntzen egoera parekatzera jo beharrean, euskararen eta

gaztelaniaren arteko legezko parekotasunik ezan oinarritu du bere hizkuntza politika, Nafarroako herrien arteko muga linguistikoak ezarriz eta herritarrei hizkuntza eskubide ezberdinak aitortuz. Finean, UPN-CDNren azken legealdiotako euskararen kontrako politika erasokorrak larriagoturik, egun nafar euskaldunak eta gaztelaniadunak oso egoera ezberdinetan daude zerbitzu publikoak euren hizkuntzan hartu ahal izateko.

Euskara Nafarroako eskualde guztietan dago, euskaldunak geografia osoan bizi dira eta haien hizkuntza eskubideak Foru Komunitate osoan babestu beharrekoak direla aldarrikatzea ponentzia honen muinean dago.

Hizkuntza politikaren ponentzia honetan Nafarroa Baik bertako bi hizkuntzek, euskarak eta gaztelaniak, herritar guztien hizkuntza eskubideak babesteko Nafarroako bizitza sozialean izan beharko luketen tokia zehaztu du. Horrek hizkuntza politika neurri eraginkorrak ezartzea eskatzen du.

Komunitate baten bizitzan eta erakunde publikoen eta herritarren arteko harremanetan hizkuntza ezinbesteko elementua baita, Nafarroa Baik uste du Nafarroako Foru Administrazioak Nafarroako bi hizkuntzei ematen dien trataerak zeharkako izaera duen politika ildoan izan beharko lukeela, eta hala landu eta agertu beharrekoa Administrazioaren zereginetan eta organigraman.

Horretaz gain, hizkuntza politika eraginkor batek diruz eta baliabidez ongi hornitua behar du.

2. Oinarrizko zenbait kontzeptuen argitzea

UPN-CDNk Nafarroako agintaritzan eman dituen urteotan Nafarroako errealitate soziolinguistikoa bere nahierara agertu eta haren hautemate soziala aldarazi du, oinarrizko zenbait kontzepturi adiera guztiz interesatua emanda. Nafarroako gizartea ideologikoki intoxikatu nahi izan du euskararen kontrako politika legitimatzeko. Hori horrela, lehenik eta behin, *Nafarroa Baik* oinarrizko kontzeptu horien gaineko argitzea egin nahi du, urteetan ideologikoki elikatu diren herritarren mesfidantzak eta susmo txarrak uxatzeko.

- **Ofizialtasuna** (Euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan)
 - UPN-CDNk Nafarroaren errealitate soziolinguistikoari inolaz ere ez dagokion estatus gisa agertu du, euskara ez dakiten nafarrendako inposaketa ekarri eta Nafarroan nahitaezko euskal elebakarkeria ezarriko lukeena.
 - *Nafarroa Bair*endako Nafarroako Administrazioak nafar guztiei eskubide berberak aitortu behar dizkie, eta ez bizi diren tokiaren araberrakoak. Euskara Nafarroako hizkuntza berezkoa da, nafar guztion ondarea, eta nafar guztiok ikasteko eta erabiltzeko, Nafarroako administrazioaren aurrean ere, eskubide eta aukera bera eduki behar dute. Beraz, euskararen ofizialtasuna nafarren arteko berdintasunaren bermatzailea da, denondako ona dena herritarren eskubideak parekatzen baititu eta Nafarroako euskal hizkuntza komunitatearen zokoratze historikoari amaiera ematen baitio. Ildo horretatik, *Nafarroa*

Baik 1980ko azaroaren 3an Nafarroako Parlamentuak onartu zuen ebazpena, euskararen eta gaztelaniaren ofizialtasuna ezartzen zuena baina Estatuarekin LORAFNA negoziatzean aldatu zena, defendatzen du.

- **Borondatea**

- UPN-CDNk azken urteotako araudietan Administrazioaren baitan utzi du herritarrei euskarazko zerbitzua eman ala ez, Administrazioaren borondatearen arabera bailitza. Nafarroako administrazioak herritarren eskubideak bermatu ordez hizkuntza eskubideak kontzesio administratiboak bezala kudeatu ditu.
- *Nafarroa Bai*rendako euskararekiko borondatea herritarrei baino ez dagokie eta Administrazioak herritarren hautatzeko eskubidea babestu beharra du.

- **Ekintza positiboa** (*Discriminación positiva* deitu izan dena)

- UPN-CDNk euskaldunen eskubideak babesteko zenbait neurri (Administrazio lanpostuetan aritzeko euskara jakin beharra edo haren merezimendua, kasu) euskaraz ez dakiten nafarren eskubideen kontraketat eta herritarren aukera berdintasunaren urratzailatzat agertu ditu.
- *Nafarroa Bai* k uste du historikoki zokoratuta egon den hizkuntza baten normalkuntzak hizkuntza horrek hizkuntza ofizialarekin parekotasuna lortzea eskatzen duela, beste modu batez esanda, berdintasuna behar duela. Bestalde, berdintasunak egoera ezberdinak modu ezberdinetan tratatzea eskatzen du. Berdintasuna ez da gaixoari eta osasuntsuari modu berebean tratatzea, gaixoari tratamendu berezia ematea baizik. Ekintzak positiboak ez du bazterkeria sortzen, alderantziz ere, demokraziak egoera juridikoak berdintzeko erabiltzen duen tresna da. *Nafarroa Bai*ren interpretazio horrekin bat egiten dute eta UPNren erabilkeria gaitzetzen dute Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartak (7.2 artikulua), Hizkuntza Gutxituetarako Europako Bulegoak - EBLULEk (Nafarroako egoera aztertuta, zuzentzeko emandako gomendioetan) eta Konstituzio Epaitegiak berak¹.

- **Hizkuntza politika** (Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika)

- UPN-CDNk hizkuntza politikaren kontzeptuari adiera berria eman zion eta haren baitan euskara ez ezik, Europako hizkuntzarik mintzatuenak ere sartu zituen. Horrek euskarari dagokion berezitasuna galtzea ekarri du, euskara atzerriko hizkuntzen parean edo makurrago ere utziz eta euskara sustatzeko diru sailak hizkuntza gehiagoren artean nahasi eta ahulduz. Bestalde, nafarrok bezala euskal hizkuntza komunitatearen

¹ Konstituzio Epaitegiaren otsailaren 28ko 1991/46 epaiak honako hau ezarri zuen: gaztelania ez den beste hizkuntza ofizial bat jakin beharra eskatzea bat datorrela funtzio publikoan sartzeko bete behar diren *merezimendu eta gaitasun* printzipio konstituzionalekin, baldin eta eskakizunak ezartzean bi baldintza bete egin badira: arrazoizkoa eta proportzionala izatea.

parte diren ondoko lurraldeetako administrazioekin inolako lankidetzarik ez dago hizkuntza politikaren alorrean.

- *Nafarroa Bai*rendako hizkuntza politika Nafarroan herritarrek ezagutu eta erabiltzeko eskubidea aitortua duten hizkuntzei dagokie; beraz, euskarari bere berezitasuna aitortuko dio, egoera gutxituan dagoen Nafarroako berezko hizkuntza gisa, inoiz ez atzerriko hizkuntzen mailara ekarrita². Hizkuntza politika euskararen erabilera ofiziala arautzeko eta erabilera soziala normalizatzeko beharrezkoak diren neurriak bideratzean datza. Atzerriko hizkuntzei ematen zaien trataera Hezkuntza Departamentuari (irakaskuntza eta ikasteko sustapenari dagokiona) ez ezik beste batzuei ere dagokieke (Turismoari edo Industriari, erraterako, honako afera hauek dagozkiela: hedapena, Kanpoko merkataritza harremanak, etiketatuak...). Bestalde, Nafarroako hizkuntza politikaren definizioan ezin ahantzi genezake euskara berezko hizkuntza duten Euskal Herriko beste lurraldeetako administrazioekin lankidetzaz esparruak lantzeko aukerak sustatzea³. Hizkuntza politika eraginkorra izanen bada, Nafarroako Gobernuak organigramaren leku estrategikoa behar du. Bestalde, egungo Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari izaera berria, euskararen gaineko araudia garatzeari loturik emanen zaio.

- **Elebitasuna eta eleaniztasuna**

- UPN-CDNk elebitasun jakin baten (gaztelania/ingelesa) adiera positiboa euskara ahultzeko erabili izan du. Ezagunak dira I eta J ikastereduen esperimenduak. Gaztelania/euskara elebitasuna berriz, modu bazterrekoan eta ez positibotzat agertu du.
- *Nafarroa Bai*k gaztelania/euskara elebitasuna bermatu ez ezik, nafarrek atzerriko hizkuntzak ikasteko aukera ere zabaldu eta sustatu nahi du. Euskara, gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bat edo bi dakizkiten nafar eleanitzak izatea guztiz adosgarria eta desiragarria den hizkuntza proiektua da Nafarroako belaunaldi berriendako. *Nafarroa Bai*k atzerriko hizkuntzen irakaskuntza bermatzea eta sustatzea lehentasun handikotzat jotzen du eta hori euskaraz ikastearekin guztiz adosgarria den aukera gisa aurkeztu nahi dio Nafarroako gizarteari. Bi ele ofizial eta beste bat edo bi norbanakoarenak nahi ditugu. Bestalde, auzo harremanetarako, ez dugu ahaztu behar Iparraldean frantsesa dela hizkuntza nagusia.

- **Euskararen erabilera politikoa**

² Ildo horretatik, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaimahaiak 29/03 Foru Dekretuaren epaian ondoko hau ezarri zuen: «*La ponderación del euskara en relación con otras lenguas de las Comunidades Europeas es una deshabilitación del rango que la Ley atribuye a esta lengua*».

³ Europako Kontseiluaren adituak ondoko hau azaldu zuten euren txostenean: «*El hecho de que el vascuence esté dividido entre dos entidades administrativas diferentes, es decir, las dos Comunidades Autónomas en cuestión, conlleva la necesidad de establecer una estrecha coordinación entre estas diferentes entidades administrativas*».

- UPN-CDNk euskararen erabilera politikoa salatu egin dute: euskara pribilegioak eta helburu politikoak erdiesteko erabiltzen dela erran dute behin eta berriz. Administrazio publikoetan sartzeko euskara jakitea eskatzea iruzurra eta bazterkeria edo diskriminazio kontzeptuekin uztartu ditu. Nazionalismo espainoletik euskara helburu politiko jakin baterako erabiltzen dela ohartarazi dute behin eta berriz. Horrela, euskara eta politika hitzak elkarrekin doazelarik mesfidantza sortzen dute gizartean.
- *Nafarroa Baik* euskarak politikak behar dituela aldarrikatu nahi du, politikak bai, *politiqueorik* ez. Eta euskara normalizatzeko, berdintzeko, maila askotako politikak behar dira. Nafarroako hizkuntza berezkoa da, Nafarroako ondare kulturala eta, aldi berean, laguntza behar duen ondarea da. Egoera ahulean dauden gizarteko beste taldeendako edota beste ondare kulturalerako egiten den bezala, herritarrek euskara erabili ahal izan dezaten eta gizartean hizkuntza gutxitua erabiltzeko aukerak sor daitezzen politika egokiak, bai eta diru laguntza publikoak ere, behar dira.

3. Nafarroa Baik proposatzen duen Hizkuntza Politika berria zenbait hitzetan definitzeko

NaBaik oinarrizko kontzeptu edo gako hitzotan adierazi nahi du proposatzen duen hizkuntza politika berria:

- **Berdintzalea**, Nafarroako bi hizkuntza komunitateentzat berdintasuna bermatu nahi baitu. Nafarroako bi hizkuntzek estatus bera izan behar dute legez. Euskarari gaztelaniak duen estatus bera ematea, hau da euskarari ofizialtasuna Nafarroa osoan aitortzea da herritarren artean berdintasuna bermatzeko lehen baldintza. Hizkuntza politikak nafar euskaldunentzat baztertzailerak diren egungo lege-arauak zuzenduko ditu, Foru Hobekuntzako Legearen 9. artikulutik hasita.
- **Borondatezkoa**, herritarrek aukeran izanen baitute Nafarroako zein hizkuntza erabili eta Administrazioak herritarren borondatea, hautatzeko eskubidea, babestu beharko du⁴.
- **Hizkuntza eskubideen babesgarria**, nafar euskaldunen nola gaztelaniadunen hizkuntza eskubideak babestea lehentasuna izanen baitu⁵. Nafarroan ezarrita dauden Administrazio guztien aldetik egitekoa.

⁴ Kontutan izanda 1986ko Euskararen Foru Legeak borondatearen printzipioa jaso egin zuela lehenengo artikuluan: «Euskararen erabilpena eta irakaskuntza bermatzea, **borondatezkotasun**, mailakatze eta begirune irizpideei jarraiki, hau guztia Nafarroako errealtate« soziolinguistikoaren arabera.

⁵ Kontutan edukitzeko. 1986ko Foru Legeak bere 4. artikuluan hizkuntza eskubideak aitortzen dituela: «Indarrean dagoen legeriaren arabera, eta Foru Lege honetan ezartzen diren **hizkuntz eskubideetan** babestuak izateko, herritarrek Epaile eta Auzitegietara zuzen daitezke».

- **Ekintza positiboaren eragilea** izanen da historikoki zokoratua eta legez menpekoa izan den hizkuntzaren alde. Euskarak gaztelaniarekin parekotasuna lortuko du urteetako kontrako politiken eraginak eta gabeziak berdindutakoan. Ekintza positiboa demokraziak egoera juridikoak berdintzeko erabiltzen duen tresna da.
- **Malgua**, hizkuntza politika Nafarroa osoan aplikatzeko ezarpen mailakatuak ahalbidetzen dituena. Herritarren hizkuntza eskubideak babesteko lurralde osorako gutxienekoak zehaztuko dira baina tokian tokiko egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika egingen da. Udalek paper garrantzitsua izanen dute hizkuntza politikaren mailak eta intentsitateak definitzeko orduan.
- **Progresiboa**, hau da, ofizialtasunari lotutako neurriak arian-arian edo progresiboki eta Nafarroako egoera soziolinguistikoa den errealitate dinamikoari erreparatuta aplikatuko dira. Kontzeptu hau borondatearen printzipioari lotuta dago (baino ez menpe).
- **Europarra**, Europako baloreekin bat egiten duena eta Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartan jasotakoak nola Europako Kontseiluaren gomendioak errespetatzen dituena.
- **Zeharkakoa**, Administrazioaren sail bakar bati lotuta egon beharrean, zeharkako izaera duen politika ildoak izan beharko luke.

4. Hizkuntza Politika berrirako lege egokia

- Lehenik eta behin, **nafarren euskararako eskubideak murrizten dituzten lege-araudiak indargabetu.**
- **LORAFNaren 9. artikulua aldatu** euskara ere Nafarroako hizkuntza ofiziala izateko.
- **Euskararen Foru Lege berria**
Gizarte prozesu parte hartzaile batetik sortu beharrekoa eta honako oinarri hauek izanen dituena: herritarren hizkuntza eskubideen babesa eta horretarako euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan. Ofizialtasunak gutxienezkoak ezarriko ditu Nafarroa osoan begiratu beharrekoak. Hori horrela, hizkuntza politika mailakatuak egiteko aukera emanen luke eta horretan Udalek protagonismo handia izanen lukete. Legearen aplikaziorako esparruen zabaldu behar dira, egungo Legean Administrazioa, Hezkuntza eta Hedabideak baino ez baitira aipatzen eta horietaz gain gizarte arlo gehiagotan arautu beharra baitago: arlo sozio-ekonomikoa, kulturala, teknologi berriena, etorkinen bertakotze linguistikoari dagokiona... Bestalde, Lege Berriak Nafarroan egoitza

duzen Administrazio guztiak ukituko ditu, Estatuko barne, eta Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartaren baloreekin bat egin beharko du. Bestaldek, eta administrazioari dagokionez, euskararen Lege Berria Foru Administrazioako hizkuntza jarduera arautuko du eta udalei malgutasuna emanen die euren egoera soziolinguistikoaren arabera hizkuntza politika mailakatuak eta arian-ariakoak egiteko.

Euskara Nafarroa osoan ofiziala izateak honako hau lekarke berarekin:

- Foru Komunitatearen irudia elebiduna izatea, hau da, irudi korporatiboan, protokoloan nola seinale eta errotulazioetan Nafarroako bi hizkuntzetan egitea.
- Foru Komunitateko ekimen instituzional guztietan nola euskara modu eraginkorrean erabili ahal izatea, gaztelaniaren parean.
- Foru Komunitate osoan Administrazio Publikoen aldetik euskaldunek gutxieneko harrera eta oinarritzko zerbitzuen eskaintza izatea. Toki Administrazioak tokian tokiko egoera soziolinguistikoaren arabera jokatu luke. Hau da, zer ekarriko luke ofizialtasunak Nafarroako Erriberan? Han bizi diren nafarrek oinarritzko zerbitzu publikoak euskaraz jaso nahi dutela hautatu ahal izatea, beti ere aipatu den mailakotasun eta progresibitatez.

- **Sustapen politika**

Hemen sustapen politikaren neurri ezberdinak sartzen dira, orokorrak nola zehatzagoak. Bestalde, hizkuntza politika aurrekontu handiagoz hornitzeko premia handia dago. Nire iduriko gehiago zehaztu beharko litzatekeena:

- **Euskararen aldeko komunikazio estrategia berria**
Euskararen aldeko politika berri batek komunikazio estrategia sendo, orokor, eraginkor eta erakargarria behar du, euskararen irudi berritua eta integratzailea landu behar baita bereziki euskara ez dakiten Nafarroako herritarrendako.
- **Administrazio publikoak**
Herritarrari arreta bermatzea berak aukeratutako hizkuntzan. Neurri horiek pixkana aplikatuko dira eta hasieran arreta zuzenari, dokumentazio idatziari, errotulazioari eta erakunde-irudiari aplikatuko zaizkie. Halaber, lehentasunak zehazterakoan, irizpide hau hartuko da kontuan, zerbitzua Nafarroako herritar guztiei zuzendutakoa den edo eremu txikiagoan ematekoa den. Administrazioa ofizialtasunari egokitzeko tokian tokiko egoera soziolinguistikoari erreparatuko zaio. Langile publikoen euskarazko prestakuntza sustatzeko programak ezarriko dira. Administrazioarekin euskaraz aritu nahi duten herritarren eskubideak bermatzeko ibilbide administratiboak edo zirkuitoak. Toki entitateetako euskara zerbitzuak Nafarroa osora hedatuko

dira. Nafarroako Euskararen Kontseiluaren erreforma⁶ eta indartzea.

- **Irakaskuntza** maila guztietan, Haur Eskoletatik Unibertsitate bitartean, Lanbide Heziketa barne, gurasoen eta/edo ikasleen hizkuntza aukera bermatuta izanen dute Nafarroa osoan. Euskara Nafarroako hizkuntza berezkoa da, Nafarroan ikasten duten denek, euskararekin gutxienezko harremana (historia, oinarrizko ezagutzak,...) izan behar dute. Nafar batentzako euskara ezin da izan ezezaguna. Bestalde, Nafarroako Administrazioak euskarazko irakaskuntza etorkinen bertakotzea laguntzeko bidetzat balioetsi beharko luke.
- **Helduen euskalduntze-alfabetatzea**
Helduen Euskalduntze-alfabetatzea babestu, sustatu, duindu eta diruz ongi hornituko du, euskara ikastea bermatu beharreko eskubidea baita. Euskalduntze-alfabetatzea sustatu eta zabaltzeko plangintza sendoa eta zehatza osatu beharra dago. Plangintza hori diseinatzeko sektoreko eragile guztiak hartuko dira kontuan.
- **Hedabideak**
Euskarazko komunikabide publiko nahiz pribatuak izatea bermatzea. Horretarako, beharrezkoa da euskararen erabilera irizpidea izatea irrati eta telebista lizentziak emateko deialdietan. Diru hornidurak handitzea.
- **Gizarte ekimeneko edo ekimen pribatuko programak**
Gizarte ekimeneko edo ekimen pribatuko programak finantzatzeko deialdiak egitea, baldin eta euskara eta euskararen erabilera sustatzeko badira, gizartean nahiz bestelako jardueretan, hala nola kulturaren, ikus-entzunezkoetan edo teknologia berrietan. Eskolaz kanpoko eta aisialdi alorretan euskararen erabilera sustatzeko programetarako laguntzak, hizkuntza transmisiorako programak, erabilera planak,... Bestalde, Foru Administrazioak Nafarroan euskararen sustapen arloan jarduten duten gizarte eragileekin harreman egokiak izan beharko lituzke.
- **Euskara teknologia berrietan**
Informazioaren gizartean euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko programak garatuko dira.

⁶ Erregioetako edo Gutxiengo Hizkuntzen Europako Kartaren 7.4 artikuluari lotzeko: «*Erregio edo gutxiengo hizkuntzekiko politika zehazteaz batera, kartagileek hizkuntza horietako hiztunek adierazitako beharrian eta gurariak kontutan izateko konpromisoa hartu dute. Beharrezkoa baldin bada, erregio edo gutxiengo hizkuntzekin zer ikusia duten kontuez agintariei gomendioak emateko organoak sor ditzatela eskatzen zai*»e.

- **Herritarren hizkuntza eskubideen aipamen zehatza sartu halakorik ez dagoen eta bidezkoa litzatekeen Nafarroako arauditan, Kontsumitzaileen Legean, adibidez.**

5. Proposamen bereziak

- Nafarroako Parlamentuak herritarren hizkuntza eskubideen bermea begiratuko lukeen **behatzaile** figura sortuko du.
- Nafarroako **Soziolinguistika Institutua** eratzea.
Nafarroan hizkuntzen arteko ukipenetatik (hizkuntza gatazka) sortzen diren arazoak eta onurak ditugu eta horiek modu zientifikoan ikertzeko lekua izanen litzateke Nafarroako Soziolinguistika Institutuak.
- **Arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko neurri bereziak**
Arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko programak sustatu eta garatuko ditu Foru Administrazioak arloko eragileak kontuan hartuz.